

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko maiatza

Euskal AEn, 2025eko maiatzean, ostatu-gauek % 8,2 egin dute gora landa-ostatuetan, % 12,8 apartamentu turistikoetan eta % 5,0 aterpetxe turistikoetan

2025eko maiatzera arteko balantze metatuak balio positiboak ditu hiru establezimendu motetan bai sarreretan, bai ostatu-gauetan

2025eko maiatzean, Euskal AEko **landa-ostatu**etako sarrera-kopurua % 4,7 hazi da aurreko urteko hil beraren aldean, eta ostatu-gauak % 8,2. Urte arteko hazkunde horiekin, maiatzean sarrera-kopurua 20.022ra iritsi da eta ostatu-gau kopurua 43.191ra.

Euskal AEko landa-ostatu

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	2024/05	2025/05	p.p. *	2025/05	p.p. *
EUSKAL AE	20.022	4,7	43.191	8,2	2,16	2,09	32,2	3,0	38,0	3,6
Estatukoak	12.419	-3,5	28.359	9,1	2,28	2,02	-	-	-	-
Atzerritarrak	7.603	21,8	14.832	6,6	1,95	2,23	-	-	-	-
Araba/Álava	3.706	5,0	8.588	37,9	2,32	1,77	26,7	8,4	30,9	7,8
Estatukoak	2.969	-2,6	6.861	27,8	2,31	1,76	-	-	-	-
Atzerritarrak	737	53,5	1.727	101,0	2,34	1,79	-	-	-	-
Bizkaia	5.992	13,1	11.286	-0,2	1,88	2,14	28,9	-0,5	35,2	1,0
Estatukoak	2.893	-15,9	6.478	-12,5	2,24	2,15	-	-	-	-
Atzerritarrak	3.099	67,1	4.808	23,0	1,55	2,11	-	-	-	-
Gipuzkoa	10.324	0,3	23.317	4,2	2,26	2,17	37,0	2,2	43,5	2,9
Estatukoak	6.557	2,7	15.020	13,6	2,29	2,07	-	-	-	-
Atzerritarrak	3.767	-3,6	8.297	-9,3	2,20	2,34	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Ekainaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko maiatzaren aldean % 21,8 hazi ondoren, atzerritar jatorriko sarrerak Euskal AEko landa-ostatu

Lurralde historikoen arabera, 2025eko maiatzean, sarreraren urte arteko igoera % 0,3ra iritsi da Gipuzkoan, % 5,0ra Araban eta % 13,1era Bizkaian. Ostatu-gauei dagokienez, % 37,9 gehitu dira Araban eta % 4,2 Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, % 0,2 gutxitu dira.

Euskal AEko mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,16 egunekoa izan da maiatzean, 2024ko maiatzean izandako 2,09 eguneko batez bestekoaren gainetik kokatuta. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste igarotzen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEko egonaldiaren iraupen osoari.

Plazen arabera eta logelen arabera okupazio-mailek urte artean ehuneko 3,0 eta 3,6 puntuko igoera izan dute, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuz gero, % 32,2koa izan da igoera eta logelen arabera % 38,0koa.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko maiatzean 26.049 sarrera eta 71.692 ostatu-gau erregistratu dira. Aurreko urteko maiatzaren aldean sarrerak % 30,9 gehitu dira eta ostatu-gauak % 12,8.

Apartamentu turistiko deitzen zaio ustiapeneko enpresa-unitate bakar batek bloke edo multzo gisa eskaintzen duen ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen erabileratouristiko** **etxebizitzak**, hau da, helburu turistikoetarako aldi baterako eskaini, merkaturatu edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Maiatza 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	2024/05	2025/05	p.p. *	2025/05	p.p. *
EUSKAL AE	26.049	30,9	71.692	12,8	2,75	3,19	40,4	-1,8	75,6	4,5
Estatukoak	13.456	23,1	37.984	6,0	2,82	3,28	-	-	-	-
Atzeritarrak	12.592	40,3	33.709	21,4	2,68	3,09	-	-	-	-
Araba/Álava	864	-26,0	9.751	2,4	11,28	8,16	28,4	-1,6	69,7	-8,2
Estatukoak	660	-34,0	6.885	12,9	10,44	6,10	-	-	-	-
Atzeritarrak	205	21,6	2.866	-16,4	14,01	20,36	-	-	-	-
Bizkaia	17.845	37,9	33.959	25,2	1,90	2,10	40,6	0,2	72,3	16,3
Estatukoak	9.210	28,4	16.405	15,9	1,78	1,97	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.635	49,6	17.554	35,3	2,03	2,25	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.339	26,7	27.982	3,9	3,81	4,65	46,8	-4,9	81,9	-1,5
Estatukoak	3.587	30,0	14.693	-5,6	4,10	5,64	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.753	23,7	13.289	16,9	3,54	3,75	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Ekainaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 48,3 eta ostatu-gau guztien % 47,0 jatorri atzeritarreko bisitariei dagozkie; 2025eko maiatzean, urte artean, % 40,3 eta % 21,4 igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 2,75 egunekoa izan da 2025eko maiatzean, 2024ko maiatzean baino gutxiago, orduan 3,19 egunekoa izan baitzen. Araban, mota horretako establezimenduen batez besteko egonaldia 11,28 egunekoa izan da, Gipuzkoan 3,81 egunekoa eta Bizkaian 1,90 egunekoa.

Plazen okupazio-maila % 40,4koa izan da Euskal AEn, 2024ko maiatzaren aldean ehuneko 1,8 puntu galdu ondoren. Apartamentu bakoitzeko okupazio-mailak, berriz, ehuneko 4,5 puntuko igoera izan du, % 75,6an kokatu da.

Euskal AEko **Aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2025eko maiatzean % 7,4 igo dira sarrerak: guztira 30.973 izan dira eta ostatu-gauak 51.378. Bizkaian 29.465 gau igaro dituzte, Gipuzkoan 21.247 eta, azkenik, Araban 667.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gauldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Maiatza 2025

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	m/m-12 (%)	2025/05	2024/05	2025/05	p.p.
EUSKAL AE	30.973	7,4	51.378	5,0	1,66	1,70	47,4	0,7
Estatukoak	12.462	13,6	22.291	23,3	1,79	1,65	-	-
Atzerritarrak	18.511	3,6	29.088	-5,7	1,57	1,73	-	-
Araba/Álava	312	-60,2	667	-47,1	2,14	1,60	14,8	-18,2
Estatukoak	288	-54,4	594	-27,2	2,06	1,29	-	-
Atzerritarrak	24	-84,5	73	-83,6	3,07	2,90	-	-
Bizkaia	16.744	3,9	29.465	3,3	1,76	1,77	53,4	1,2
Estatukoak	6.740	7,5	13.441	21,5	1,99	1,76	-	-
Atzerritarrak	10.004	1,5	16.024	-8,2	1,60	1,77	-	-
Gipuzkoa	13.917	16,5	21.247	10,9	1,53	1,60	43,5	2,3
Estatukoak	5.434	33,4	8.256	33,2	1,52	1,52	-	-
Atzerritarrak	8.484	7,8	12.991	0,3	1,53	1,65	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Ekainaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota honetako egonaldiaren batez besteko iraupena 1,66 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen arabera okupazio-maila, urte artean ehuneko 0,7 puntu igo ondoren, % 47,4ra iritsi da.

Metatutako datuak (2025eko urtariletik maiatzera)

Euskal AEko **landa-ostatu**etan, 2025. urtean, orain arte, 55.243 sarrera erregistratu dira guztira eta 120.864 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, 2024. urteko aldi metatu berean baino % 3,8 eta % 2,9 gehiago. Batez besteko egonaldia 2,19 egunekoa izan da eta aurreko urtekoa 2,21 egunekoa izan zen. Okupazio-mailei dagokienez, plazen arabera neurtuta % 21,2koa izan da, 2024ko aldi metatu berean lortutako % 20,0aren gainetik. Logelen arabera neurtuta, 2025eko lehen bost hilabeteetan okupazio-maila 2024ko % 23,9koa baino altuagoa izan da, % 25,5ekoa, hain zuzen ere.

Apartamentu turistikoei dagokienez, maiatzean 93.251 sarrera metatu dira eta 288.404 ostatu-gau. 2024ko lehen bost hilabeteen aldean, sarrerak % 33,3 igo dira eta ostatu-gauak % 15,8. Batez besteko egonaldia 3,09 egunekoa izan da 2025eko lehen bost hilabeteetan, eta 3,56 egunekoa izan zen, berriz, 2024an. Plazen arabera okupazio-maila % 35,0koa izan da eta logelen arabera % 64,7koa; 2024ko aldi berean lortutakoa baino 0,7 eta 2,8 puntu handiagoa, hurrenez hurren.

Aterpetxe turistikoetan, 2025ean igaro diren hilabeteetan, 89.674 sarrera eta 154.976 ostatu-gau metatu dira, 2024ko aldi beran baino % 6,3 eta % 2,2 gehiago. Batez besteko egonaldia 1,73 egunekoa izan da, aurreko urteko 1,80 egunekoa baino laburragoa. Plazen arabera okupazio-maila, azkenik, % 32,7koa izan da, 2024ko lehen bost hilabeteetan lortutako % 32,2koa baino 0,5 puntu handiagoa.

Informazio-oharra

ETH inkestaren erantzun-tasa % **92,4**koa izan da landa-ostatuetan, % **84,7**koa apartamentu turistikoetan eta % **88,8**koa aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62